



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

**BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN SANEAMENDU ETA
ARAZKETA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN**

ORDENANTZA



AURKIBIDEA

ZIOEN ADIERAZPENA.....	4
I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK	8
1. ARTIKULUA. XEDEA.....	8
2. ARTIKULUA. APLIKAZIO EREMUA.....	8
3. ARTIKULUA. DEFINIZIOAK.....	8
4. ARTIKULUA. ESKUMEN-ARAUBIDEA.....	12
II. KAPITULUA. SANEAMENDU SISTEMA PUBLIKOAREN ERABILTZEA.....	13
5. ARTIKULUA. SANEAMENDU SISTEMA PUBLIKOAREN ERABILTZEA.....	13
6. ARTIKULUA. SANEAMENDU AUTONOMOIA ERABILTZEA.....	13
7. ARTIKULUA. ESTOLDERIA SAREA ONIK ZAINTZEA.....	13
8. ARTIKULUA. SANEAMENDU SISTEMARA EGITEA DEBEKATUTA EDO MUGATUTA DAUDEN ISURKETAK.....	14
9. ARTIKULUA. AURRETRATAMENDUA.....	16
10. ARTIKULUA. INDUSTRIAKO HONDAKIN URAK DEUSEZTATZEKO BESTE MODU BATZUK.....	17
11. ARTIKULUA. LARRIALDIAK.....	17
III. KAPITULUA. SANEAMENDU SISTEMARA EGITEN DIREN ISURKETEN IKUSKAPENA ETA ZAINTZA.....	19
12. ARTIKULUA. IKUSKAPENA ETA ZAINTZA.....	19
13. ARTIKULUA. INSTALAZIOETAN SARTZEA.....	19
14. ARTIKULUA. IKUSKAPEN ETA ZAINTZAKO JARDUERAK.....	19
15. ARTIKULUA. JARDUERAK JASOTA UZTEA.....	20
16. ARTIKULUA. AUTOKONTROLA.....	20
17. ARTIKULUA. ISURKETAREN JARRAIPEN ETENGABEA ETA TELEKONTROLA.....	21
18. ARTIKULUA. LAGINAK.....	21
19. ARTIKULUA. ANALISA.....	22
20. ARTIKULUA. ADOSTASUNIK EZ ANALISIEN EMAITZEKIN.....	23
IV. KAPITULUA. KUTSADURA-KARGA.....	23
21. ARTIKULUA. KUTSADURA-KARGA ZEHAZTEA.....	23
22. ARTIKULUA. POPULAZIO BALIOKIDEA KALKULATZEA.....	24
V KAPITULUA. ISURKETA-BAIMENA.....	25
23. ARTIKULUA. ISURKETA-BAIMENA.....	25
24. ARTIKULUA. ISURKETA-BAIMENAREN EZAUGARRIAK.....	25
25. ARTIKULUA. SAILKATZEA ETA IZAPIDETZEA.....	25
26. ARTIKULUA. ISURKETA-BAIMENA ETA DISPENTSA ALDATZEA, IRAUNGITZEA ETA ONDORIORIK GABE GERATZEA.....	27
27. ARTIKULUA. ERABILTZAILIEN BETEBEHARRAK.....	28
28. ARTIKULUA. GAINORDAINAK.....	29
VI. KAPITULUA. SANEAMENDU SARERA LOTZEA.....	30
29. ARTIKULUA. SANEAMENDU SISTEMA PUBLIKORA LOTZEA.....	30
30. ARTIKULUA. IZAPIDETZEA.....	30

31. ARTIKULUA.INDUSTRIAKO ERABILTZAILIEN SARE PRIBATUKO JARDUERAK.....	31
VII. KAPITULUA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA.....	32
32. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEEN KOADRO OROKORRA.....	32
33. ARTIKULUA. ZEHAPENAK.....	33
34. ARTIKULUA. ERANTZULEA.....	33
35. ARTIKULUA. ORDAINA ETA KALTE-ORDAINA.....	33
36. ARTIKULUA. BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK.....	34
37. ARTIKULUA. ZEHAPEN-PROZEDURA.....	34
VIII. KAPITULUA. EBAZPENAK ETA ERREKURTSOAK.....	35
38. ARTIKULUA ESKUMENA.....	35
39. ARTIKULUA. ERREKURTSOAK.....	35
40. ARTIKULUA. ERREKURTSO EZ BESTELAKO PROZEDURAK.....	35
41. ARTIKULUA. JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA.....	36
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	36
LEHENA.....	36
BIGARRENA.....	36
HIRUGARRENA.....	36
LAUGARRENA.....	37
BOSGARRENA.....	37
SEIGARRENA. Saneamendu autonomoa erabiltzea.....	37
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	39
AZKEN XEDAPENA.....	39
I. ERANSKINA.....	40
II. ERANSKINA.....	42
III. ERANSKINA. INPRIMAKIAK.....	44
IV. ERANSKINA.....	72
V. ERANSKINA.....	76



ZIOEN ADIERAZPENA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (Partzuergoa, aurrerantzean) udalaz gaindiko erakundea da, eta bere xede nagusia edateko urez hornitzea eta hondakin uren saneamendu eta arazketa zerbitzuak ematea da, Partzuergoa bera osatzen duten udalerrien lurralde-eremuan, oinarritzko printzipiotzat hartuta hiriko uraren ziklo osoaren kudeaketa eta, aipaturiko lurralde-eremuan, zerbitzuaren kalitatearen homogeneousuna nahiz tarifen uniformetasuna.

Dagozkion helburuak betetzeko, Partzuergoak, besteak beste, ur-horniketako, saneamenduko eta arazketako zerbitzuak arautzeko eskumena du bere lurralde-eremuan, zerbitzu horiek ematea bere gain hartzen duen neurrian; eskumen horien barruan, isurketak antolatzea eta zehatzeko ahalmena daude. Halaber, Partzuergoaren eskumena da Bezeroen Kudeaketa zerbitzua antolatzea, hari buruzko arategi uniformearen eratuzea, Partzuergoko kide diren udalerrietako lurralde-eremuan.

1989ko martxoaren 16an onartu eta gero, “Behe Nerbioi-Ibaizabaleko saneamendu sistema orokorrean (Bilboaldea) hondakin urak isurtzeko eta ur horiek arazteko arategia” sartu zen indarrean, eta arau hori izan da indarrean gaur egun arte Partzuergoko kide diren udalerririk guztietan; hain zuzen ere, arau hori ordeztu du Ordenantza honek.

Arautegiaren bidez, isurketen kalitatea guztiz erregularizatzea lortu nahi izan da, bereziki industriena, araztegitara iristen diren urak tratatzeko modukoak izan daitezkeen eta, horrela, efluentearen kalitatea bat etor dadin erakunde eskudunek ingurune hartzaileko dagoeneko ezarri dituzten edo etorkizunean ezarriko dituzten betekizunekin.

Estatua 1985ean egungo Europar Batasunean sartzean, lege-aldaketa etengabea izan da, eta alor guztiei eragin die, bereziki, hondakin uren alorrari; halaber, alor horrek bilakaera izan du hala kalitatearen nola kantitatearen aldetik, eta horrek guztiak aldaketa ugari eginarazi du, bai eta gaiari loturiko alderdik guztiak nabarmen garatzera bultzatu ere.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren ildotik, Europar Batasunak ingurumenaren alorrean duen politikak honako printzipio hauek izan behar ditu oinarritzat: zuhurtasun-printzipioa; prebentziozko ekintzaren printzipioa; ingurumenaren aurkako atentatuak zuzentzeko printzipioa, sorburuan bertan, ahal bada; eta kutsatzen duenak ordaindu egiten duela dioen printzipioa.

Gaur egun, eta 2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentaraua argitaratu zenetik Europan izan den aipatutako lege-garapen handiaren ondorioz funtsean, legedi horretan jaso eta mugaturiko parametro asko mugatu dira, zuzenean edo zeharka hondakin urarekin zerikusia duten parametroak, hain zuzen ere. Hala, bada, lehentasunezko substantzietan, substantzia preferenteei eta beste kutsatzaile batzuei buruzko ingurumen-kalitateko arauak (IKA) sartu dira, urtarrilaren 21eko 60/2011 Errege Dekretuari eta abuztuaren 12ko 2013/39/UE Zuzentaruari jarraiki, ur-politikaren alorrean.

Halaber, hainbat parametrotan mugak sartu dira hondakin ura berriz erabiltzeko, lohiak nekazaritzan erabiltzeko, eta E-PRTR deritzon arategia dago, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuei buruzko Legeari lotuta.

Aipaturiko arategia –1989an– onartu zen egunetik erroto aldaketa gertatu da Partzuergoak diharduen eremuko industria-egituraren zein gizarteak inguruneari buruz duen jarreraren. Era berean, Partzuergoaren eremuan saneamendu publikoko azpiegitura ia guztiak gauzatu eta abian jarri dira

(kolektore-sarea eta araztegiak), bai eta industrietako aurretratamendu-instalazioak ere, beharrezkoak ziren tokietan.

Izan ere, arautegi hura –bere garaian 1972ko estatutu-esparruaren arabera idatzia- ondorengo estatutuek izan duten aldaketek gaindituta geratu da, bereziki 1997ko aldaketari dagokionez; azken horretan, Partzuergoari erabateko eskumena ematen zaio isurketak egiteko baimenetan, hala Lehen Mailako Saneamendu Sarera, nola Udal Estolderia Saretaran, horrekin batera datorren arautzeko eta zehatzeko ahalmen osoarekin.

Egun indarrean diren estatutuetako 8.6 artikuluan xedaturik dagoenez, Partzuergoari ondorengoa esleitzen zaio: “... Hondakin uren isurketak –lehen mailako saneamendu sarera zein estolderia sarera egiten direnak– baimentzea, haien jarraipena egitea, kontrolatzea eta ikuskatzea; eta gertatzen diren arau-hausteak zehatzeko ahalmena, gehiegizko isurketak geldiaraztea, hala dagokionean, edo urez hornitzeko dena delako kontratua deuseztatzea barne...”.

Beste alde batetik, 2006. urtean, Eusko Legebiltzarrak Uraren 1/2006 Legea onartu zuen, eta hango 35. artikuluan saneamendu eta arazketa zerbitzua arautzeko tokiko ordenantzak izan beharreko gutxieneko edukia zehazten da.

Egoera berri hori dela kausa, komenigarria da “Behe Nerbioi-Ibaizabaleko saneamendu sistema orokorrean (Bilboaldea) hondakin urak isurtzeko eta ur horiek arazteko arautegia” zeharo eguneratzea, eta saneamendu eta arazketa zerbitzuaren gaineko berezko Ordenantza bihurtzea, orain arte indarrean izan den araudia behar den moduan egokitzuz eta osatuz.

Ordenantza honetan alderdi hauek jasotzen dira:

Kutsaduraren sorburuko prebentzioa

Partzuergoak babesa ematen die kutsadura sorburuan kontrolatzeko neurriak sustatzen dituzten ekimenei, kolektorera egiten diren isurketei mugak ezarriz.

Saneamendu Sistema erabiltzeko nahitaezotasuna

Egoera normalean, erabiltzaile guztiek Saneamendu Sistema publikoko sarera isuri behar dituzte hondakin urak, eta salbuespenez bakarrik isuri ahalko da ingurune hartzailera, eta orduan, jakina, indarrean diren legezko baldintzak kontuan hartuz.

Aurretratamenduak eman arren kolektore sarean onargarriak ez diren produktu batzuei, gune zentralizatuetan, tratamendu bereziak emateko aukera ere jaso da.

Aplikazioaren homogeneotasuna

Ordenantza aldi berean aplikatuko da Partzuergoan osatzen duten udalerrri guztietan, kasuren batean saneamendu sistemako azpiegiturak bukatu gabe egon arren.

Horrela, alde batetik, eremu geografiko guztian tratamendu homogeneoa ematen da saneamenduaren alorrean, eta, bestetik, egoera une oro egokia izan dadin eragin behar du, obra-planen garatze-maila dela-eta, oraindik kolektore-sarean jasotzen ez diren isurketetarako.

Saneamendu sistema orokorreari loturiko arazketa-instalazio autonomoak (AIA) (hobi septikoak) pixkanaka kentzea

Hobi septikoak –edo baliokideak– etxeetako hondakin urak edo haien parekotzat har daitezkeenak era autonomoan tratatzeko instalazioak dira, eta haien funtzionamendua bateraezina da, funtzionalki, aipaturiko saneamendu sistemekin. Ondorioz, halakoak pixkanaka kentzeko asmoa dago, saneamendu sistema orokorrak Partzuergoak kudeaturiko eremu edo udalerrietara hedatu ahala.



Arazketa-instalazio autonomoetako (AIA) lohien kudeaketa arautzea

Halako instalazioetatik datozen lohien tratamendua eta kudeaketa ere arautuko dira; instalazio horiek eraikuntza bakartuetan edo biztanlegune sakabanatuetan egoten dira, saneamendu sareetara lotzeko aukerarik gabe.

Erabiltzaileen sailkapena

Isurritako bolumenen tamaina handi-txikiaren arabera zein isurketon kutsadura kargaren arabera, erabiltzaileak hiru taldetan sailkatzen dira: A, B eta C motetan, hain zuzen ere.

Ordenantzak honako hauek ere jasotzen ditu erabiltzailetzat: material-biltegitratzeak; hondakin ur kutsagarrien sortzaileak, obra isurketak eta isurketak sortzen dituzten aldi baterako bestelako jarduerak. Haien isurketek Ordenantza hauen eskakizunetara egokitu beharko dute, Saneamendu Sistemari sartzeko, hala dagokionean, edo ingurune hartzaileari isurtzeko eskakizunetara, aipatutako sistemari onartzekoak ez badira.

Kolektorera isurtzeko baimena

Kolektorera isurtzeko baimen lortzeko prozedura arautzen da. Aipatutako baimena nahitaezkoa izango da C motetako erabiltzaileentzat eta B motetako erabiltzaile batzuentzat.

Lehen mailako saneamendu sarerako loturen kudeaketa

Prozesura bat ezartzen da Partzuergoaren lehen mailako sarera lotzea izapidetzeko, eta, hala badagokio, gauzatzeko. Era berean, zehapen araubide bat ezartzen da lehen mailako sare horretan baimenik gabe egiten diren jardueratarako, edo sarea kaltetzen dutenetarako edota trabak eragiten diotenerako.

Industria batzuentzako autokontrol sistema

Erabiltzaile batzuek, nahi badute eta azpiegitura tekniko egokia badute, beren isurketen kontrola egiteko aukera izango dute, hitzartutako baldintzetan.

Isurketaren jarraipen etengabea eta telekontrola

Gaur egun, guztiz ezinbestekoa da –egun garaturik dagoen teknologiarekin– kutsaduraren kontrola eta ikuskapena merkatuko ekipamendu automatikoen laguntzarekin planteatzea. Laginak hartzeko ekipamenduetan, emari-neurgailuetan nahiz isurketaren kalitatearen neurgailuetan azken urteetan izan den berebiziko garapenari esker, hondakin uren kutsaduraren kontroleko teknikariek eta industriak berak eboluzionatu ahal izan dute, kontrolerako metodo eta mekanismoak zabaltzearekin batera. Horregatik, erabiltzaile batzuek gailuak instalatu ahalko dituzte, emariari eta isurketaren kalitateari buruzko datuak denbora errealean eta etengabe neurtu, biltegitratu eta telekomunikatzeko.

Halaber, Partzuergoak horrelako gailuak instalatu ahalko ditu, Partzuergoaren jabetzakoak, laginak hartzeko, ikuskapenaren eta zaintzaren barruan.

Larrialdiak

Ordenantzak larrialdia dagoen kasuak jasotzen ditu, isurketa arriskutsuak izan direnean, istripuen, maniobra okerren, eta abarren ondorioz. Partzuergoak saneamendu sarearen erabiltzaileei larrialdi-plan bat atontzeko eskatu ahalko die, arriskuaren ezaugarriengatik hori beharrezkoa denean.

Koordinazio-beharra

Hondakin urak osatzen duen unitate fisikoak irizpide-batasuna eskatzen du, eta, beraz, araudi bakarra, kontsumitzen den lekuan (etxean, industrian, eta abarretan) sortzen denetik sare pribatuetan, udal-estolderietan, sare orokorretan eta araztegietan isurtzen den arte, Halaber, udalek eta Partzuergoak koordinazio ezin hobe izan behar dute, bakoitzak bere eskumenen barruan.

Karga ekonomikoak eta kostuak berreskuratzea

Partzuergoak saneamendu-tasa ezartzen du urtero onartzen duen bere Ordenantza Fiskalean, Saneamendu Sistema Orokor batek eragiten dituen karga ekonomikoak ahalik eta erarik bidezkoenean banatzen saiatuz. Tasak zehazterakoan, aintzat hartzen dira kutsadura-kargak eta isurtzen diren bolumenak, eta –barneko arazketa-kostuez gain– administrazio eskudunak jabari publikora isurtzeagatik ezarritako kanonak aplikatzen dira. Helburu horretarako, modu koherentean erabili behar da kutsatzen duenak ordaindu egiten duela dioen printzipioa, hori izanik, hain zuzen ere, 2000/60/EE Zuzentarauaren oinarria.

Arau-hausteak eta zehapen-araubidea

Saneamendua Sistemaren kalteak edo trabak eragiteagatik eta isurtzeagatik egiten diren arau-hausteak jasotzen dira, bai eta isunak eta/edo gainordainak ezartzen dituen zehapen-araubidea ere.



I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA.

Ordenantza honen xedea da Partzuergoak bere kudeaketa-eremuan erabiltzaileei zerbitzua emateko baldintzak arautzea, saneamendu sistemetara lotzean eta hondakin urak isurtzean aplikatu beharreko araudia ezarririk, helburu hauek lortzeko:

- a) Saneamendu Sistema horiek babestea, osotasun material zein funtzionala ziurtaturik.
- b) Ustiatzeko eta mantentzeko lanak egiten dituzten pertsonen segurtasuna bermatzea.
- c) Hondakin urak arazteko prozesuak babestea.
- d) Efluentarako eta/edo ur-ingurune hartzaileerako ezarritako kalitate-helburuak pixkanaka lortzea, osasun publikoa, ingurumen-kalitateko araudiak betetzea nahiz araztegiatoko efluentek berrerabiltzeko aukera bermatzeko, indarrean den legediarekin bat etorriz, betiere.
- e) Araztegiatoko hondakinen azken tratamendua bermatzea (hareak, errautsak, lohiak, eta abar), eta halakoetara arriskutsu bihurtzen dituzten substantziak gehi ez daitezen ziurtatzea.
- f) Saneamendu Sistemak onik atxiki daitezen bermatzea, lehen mailako kolektore sarean egiten diren loturak eta afektazioak egoki kudeatuta.

2. ARTIKULUA. APLIKAZIO EREMUA

Ordenantza hau Partzuergoa osatzen duten udalerrri guztietan izango da aplikatzekoa.

Erabiltzaileen sailkapenari, isurketen ezaugarriari, ikuskapen eta zaintzari zein isurketak egiteko baimenari buruzko xedapenak –lotura lehen mailako sareko elementu batera eginik zein isurketa udalaren estolderia sarera eginik ere– Partzuergoak kudeatzen dituen saneamendu sistemen erabiltzaile guztiei aplikatuko zaizkie.

Saneamendu sistemetara lotzeari buruzko xedapenak lehen mailako sarera lotzen den kasuetan baino ez dira aplikatuko. Udalaren estolderia sareetara egiten diren loturak dagozkien udal-ordenantzetan xedaturikoaren arabera arautuko dira.

3. ARTIKULUA. DEFINIZIOAK

Arautegi honen ondorioetarako, eta aplikatu eta interpretatzeko, definizio hauek hartuko dira aintzat:

A) Saneamendu Sistema Publikoa.

Jabetza publikoko obra- eta instalazio-multzoa da, Ordenantzaren aplikazio-eremu geografikoan sortzen diren hondakin urak bildu, eroaman eta arazteko helburu duena.

Elementu hauek edo hauetako batzuek osatzen dute:

1. Udalaren estolderia sareak: udalaren titulartasuneko eta kudeaketako estolda, kolektore eta elementu osagarrien multzoa dira, eta udalerrri osoan edo zati batean hondakin urak eta/edo euri-urak biltzen dituzte, lehen mailako sarera, araztegia edo ingurune hartzailera eraman eta bertan isurtzeko.

2. Lehen mailako sarea: Partzuergoaren titulartasuneko eta kudeaketako kolektore, etengailu eta elementu osagarrien multzoa da; halakoek tokiko sareen edo udal-estolderien erabiltzaileengandik datozen hondakin urak biltzen dituzte, bai eta, salbuespenez, sare pribatuen erabiltzaileengandik datozenak ere, araztegiatara eramateko.

3. Hondakin uren araztegia (HUA): tokiko sare edo sare orokorretatik datozen hondakin urak arazteko behar diren egitura, mekanismo eta instalazioen multzoa da.

4. Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatutako eremua: Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatutako eremua da sistema hori osatzen duten azpiegiturak –hala nola, hondakin uren araztegiak (HUA)– eta azken horri loturiko lehen eta/edo bigarren mailako (estolderiak) sareak hedatuta eta funtzionamenduan dauden lurralde-eremua, eremu horren barruko edozein toki edo kokapen urbanizatu edo urbanizagarri sare horiek osatzen dituztenetako edozein tarterekin edo HUArekin berarekin lotura ezartzeko puntu bat izateko moduan, 100 metroak gainditzen ez dituen distantzia batera, betiere, bi punturen artean zuzen neurturik.

B) Arazketa Instalazio Autonomoa (AIA).

Erabiltzaile baten edo gehiagoren hondakin urak hartu eta –oinarrizko prozesu baten bidez gehienetan– arazten dituzten elementuen multzoa da, gero efluenta saneamendu sarera edo ingurune hartzailera zuzenean isurita.

Hiru taldetan sailkatzen dira:

1. Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatutako eremu batean dauden titulartasun pribatuko instalazioak.
2. Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatzen ez dituen eremuetan dauden titulartasun pribatuko instalazioak.
3. Zenbait etxe-multzori edo auzori zerbitzua ematen dieten instalazio komunak, Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatzen ez dituen eremuetan.

C) Estolderia-sare pribatua.

Jabetza pribatuko instalazio-multzoa da, jarduera edo etxebizitza batek edo hainbatek sortutako hondakin urak biltzen dituen, Saneamendu Sistema Publiko batera edo, salbuespenez, ingurune hartzailera isurtzeko.

D) Aurretratamenduko instalazioa.

Egitura, mekanismo eta instalazio pribatuz osaturiko multzoa, industriako edo merkataritzako jarduera baten edo hainbaten hondakin urak tratatzeko erabiltzen dena, hondakin urak Ordenantza honen eskakizunetara egokitzeko, eta, horrela, saneamendu sistema batean onartu ahal izateko.



E) Hondakinak tratatzeko instalazioak.

Egitura, mekanismo eta instalazio publikoz edo pribatuz osaturiko multzoa da, aurretratamendua eman arren Saneamendu Publikoaren Sistemari onargarriak ez diren hondakin urak tratatzeko balio duena.

F) Erabiltzailea.

Pertsona fisiko edo juridikoa, etxebizitza baten jabea, etxebizitza baten okupatzailea edo jarduera, saltoki edo industria baten titularrak, hondakin urak sortzen dituenak. Erabiltzaileak mota hauetan sailkatzen dira:

A mota: Bizi den etxebizitzarako ura bakar-bakarrik erabiltzen duena.

B mota: Ura industriako, merkataritzako edo beste alor bateko jardueretarako erabili, eta 200 biztanle-baliokidetik beherako kutsadura-karga duten hondakin urak sortzen dituenak.

C mota: Ura industriako edo merkataritzako jardueretarako erabili, eta 200 biztanle-baliokidetik gorako kutsadura-karga duten hondakin urak sortzen dituenak, Ordenantza honetako 21. artikulua araberak zehaztuta.

Aurreko lerroaldean ezarritako baldintzak betetzen ez baditu ere, erabiltzaileak kolektoreentzat gogorak diren isurketak sortzen dituzten edo sor ditzaketen prozesuak baditu, edo metal astunak edo gai inhibitzaileak sailka daitezkeen beste elementu batzuk dituzten prozesuak, arazketa prozesuetan eragin negatiboa izateagatik.

Erabiltzaile baten sailkapena aldatzen bada, sartzen den mota berriari Ordenantza honetan ezarritako betekizun guztiak bete beharko ditu automatikoki.

Jardueragatik, zerga-lizentziagatik eta abarregatik industria-jardueratzat hartzen direnez gain, urak husteko Saneamendu Sistemaz baliatzen badira, ondoren adierazten diren jarduerak ere industria-jardueratzat joko dira Ordenantza honen ondorioetarako, eta dagokien erabiltzaile-motan sailkatuko dira, bolumenaren eta kutsadura-kargaren arabera:

1. Ontziak desegitea.
2. Kaietako biltegiak eta zamalanak.
3. Sotoak eta sentinak garbitzea eta kroskoak pintatzea.
4. Isurketa kutsagarriak sor ditzakeen beste edozein erabilera edo zerbitzu, publiko edo pribatu, nahiz eta industria- edo ekoizpen-jardueratzat sailkatzerik ez izan.
5. Eraikuntza-lanek, industria-instalazioak kentzeak eta abarrek eragindako aldi baterako jardueren isurketak.

G) Kontrol-estazioa.

Sartzeko moduko esparru batek eta erabiltzaile baten isurketak jasotzen dituzten instalazioek eratzten dute kontrol-estazioa, eta haren bidez isurketak neurtu eta laginak hartu egin daitezke, Saneamendu Sistemara sartu baino lehen edo beste erabiltzaile baten edo batzuen isurketekin nahasi baino lehen.

H) Isurketa.

Edozein bide erabiliz, saneamendu sistema publikora, zuzenean edo zeharka, hondakin urak – gainezkatze-urak barne– hustea edo isurtzea, edo etxeko, industriako, nekazaritzako, abeltzaintzako edo beste mota bateko jarduera batean erabilitako urak, erabili eta gero uraren ezaugarriak eta konposizioa aldarazi ez badira ere.

I) Etxeko hondakin urak.

Etxebizitzak eta zerbitzuak dauden aldeetatik datozen hondakin urak, gehienbat giza metabolismoak eta merkataritza, industria, nekazaritza eta abeltzaintzakoak ez diren etxeetako jarduerak sorturikoak.

J) Industriako hondakin urak.

Merkataritza, industria, nekazaritza edo abeltzaintzako edozein jarduera egiteko erabiltzen diren establezimenduetatik isurtzen diren hondakin ur guztiak, etxeko hondakin urak ez direnak. Halako establezimenduetatik datozen euriaren ondoriozko jariatze-urak ere, kutsaturik daudenean edo kutsaturik egotea litekeena denean, industriako hondakin urtzat joko dira.

K) Hiriko hondakin urak.

Etxeko hondakin urak edo azken horiek industriako hondakin urekin eta/edo euriaren jariatze-urekin bat egitean sorturiko nahastea. Horrelakotzat jotzeko, industriako hondakin uren kontzentrazioa ez da izango ehuneko hogeita hamarretik gorakoa.

L) Erreferentziako analisi-metodoa.

Analizatzen den aldagaiaren ohiko tartean alde adierazgarriak erakusten dituzten kontzentrazio-mailak bereizteko, behar bezalako zehaztasuna eta doitasuna dituen neurtze-metodoa.

M) Substantzia kutsatzaileak.

Kutsadura eragin dezakeen edozein substantzia, bereziki Ordenantza honen eranskinetan jasorikoak.

N) Isurketaren muga-balioa (IBM)

Parametroren batean adierazten den kutsatzaile jakin baten kontzentrazioa edo isurketa-maila, haren balioa denbora-aldi batean edo gehiagotan isurketetan ez gainditzeko.



4. ARTIKULUA. ESKUMEN-ARAUBIDEA

Ordenantza hau aplikatzerakoan, erabiltzaileen ziurtasun juridikoa bermatzeko, Ordenantzaren xedea eratzen duten prestazioei dagokien eskumen-banaketa honako hau da, Partzuergoaren legezko eraketaren eta erakundearen arauen arabera:

1. Partzuergoko kide diren udalerriei hauek dagozkie:
 - a) Udal estolderia sareak egitea, zabaltzea, ustiatzea eta mantentzea.
 - b) Erabiltzaileek udalaren estolderia sarera egiten dituzten loturak arautzea.
2. Partzuergoari dagozkio:
 - a) Kolektore-sare batzuek eta besteek biltzen dituzten eta HUAraino eramaten dituzten hondakin urak araztea.
 - b) Obrak eta instalazioak gauzatzea lehen mailako saneamendu sarean.
 - c) Lehen mailako saneamendu sarea osatzen duten azpiegiturak ustiatzea, mantentzea eta onik zaintzea.
 - d) Bezeroen kudeaketa, lehen zein bigarren mailako sarean, Partzuergoko kide diren udalerriz guztietarako, indarreko Ordenantza Fiskalean ezarrita dagoen moduan.
 - e) Hondakin uren isurketak –lehen mailako saneamendu sarera zein udalaren estolderia sarera egiten direnak– baimentzea, haien jarraipena egitea, kontrolatzea eta ikuskatzea; eta gertatzen diren arau-hausteak zehatzeko ahalmena, gehiegizko isurketak geldiaraztea, hala dagokionean, urez hornitzeko dena delako kontratua deuseztatzea barne.
 - f) Saneamendu zerbitzua ematea eta bezeroak kudeatzea, Partzuergoko kide ez diren arren, hala eskatzen duten udalerrientzat, Batzar Nagusian ezarritako baldintzekin.
3. Artikulu honetako aurreko paragrafoetan xedatu denerako eragozpena izan gabe, udalerriek eskatuta, Partzuergoak estolderia sareak ustiatzea eta mantentzea bere gain hartzen dituen kasuetan, Partzuergoari egokituko zaizkio artikulu honetako 1. paragrafoan jasotako eskumenak.

Horrenbestez, Ordenantza honetan estolderia sareei egiten zaizkien erreferentzia guztiak Partzuergoak behe-saneamenduko zerbitzua bere gain hartu dituen udalerrietarako baino ez dira izango aplikatzekoak. Bestelakoetan, tokian tokiko udal-ordenantzek xedatutakoa bete beharko da.

II. KAPITULUA. SANEAMENDU SISTEMA PUBLIKOAREN ERABILTZEA

5. ARTIKULUA. SANEAMENDU SISTEMA PUBLIKOAREN ERABILTZEA

Fatxadaren aurrean udal-estolderia edo lehen mailako saneamendu sarea duten eraikuntza eta merkataritzako edo industriako establezimendu guztiek beren isurketak halakora lotzeko betebeharra dute, Ordenantza honetako xedapenei jarraituz.

Sare bereziak dauden tokietan, eraikuntzek hustubide-sare eta zorrotzen-sare bikoitza izan beharko dute, eta une oro saihestuko da hondakin urak eta euri-urak nahastea. Halako kasuetan, erabat debekaturik dago euri-uretarako edozein hodi hondakin uren sarera lotzea, bai eta hondakin uren hodiak euri-uren sareetara lotzea ere.

Salbuesenez, finKaren aurrean ez udal-estolderiarik ez lehen mailako saneamendu sarrerik ez dagoenean, baina, ordea, halako baterainoko distantzia 100 metro baino gutxiago denean –orubeak sare publikotik hurbilen duen mugaren eta fatxada-lerroaren arteko elkargunetik abiatuz eta loturaren luzetarako ardatzak eragiten dien bideen lerrokaduratik jarraituz neurtuta–, baldin eta teknikaren aldetik bideragarria bada eta erabiltzaileari neurrigabeko kostua ez badakarkio, titularrak hondakin urak sare publikora eraman behar ditu, luzetarako kolektore bat eginez; tarte horretan dauden finken titular guztiek elkartuta egin dezakete aipatutako kolektorea. Kolektore hori udal-administrazioaren edo administrazio eskudunaren jarraibideekin bat egingo da.

Aurreko lerroaldean jasotako egoera gertatzen ez den kasuetan, erabiltzaileek hauetako bat aukeratu beharko dute:

- a) Saneamendu Sistema erabiltzea, dagokion isurketa-baimena lortuz gero, Ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz; behar diren obra eta instalazioak erabiltzaileak ordaindu beharko ditu.
- b) Saneamendu Sistematik kanpo zuzenean isurtzea; horretarako, kasuan kasuko aginte eskudunaren isurketa-baimena lortu beharko da, bai eta Partzuergoak emandako isurketa-dispentsa ere, Ordenantzako 10. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera.

6. ARTIKULUA. SANEAMENDU AUTONOMOA ERABILTZEA.

Saneamendu autonomoa –dela Arazketa Instalazio Autonomoak (AIA) erabiliz, dela beste bide batzuk erabiliz, hala nola, Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatzen ez dituen eremuetan dauden estolderia sareak– salbuespenezkoa izango da, eta ORDENANTZA honetako xedapen iragankorretan ezartzen diren baldintzetan (denborazkoak zein materialak) baino ez da baimenduko.

7. ARTIKULUA. ESTOLDERIA SAREA ONIK ZAINTZEIA.

Saneamendu sistema publikoak onik zaindu eta mantentzea Partzuergoaren eta berau osatzen duten udalen konturakoa izango da.

Estolderia sare pribatuak onik zaindu eta mantentzea halakoak beren hondakin urak husteko erabiltzen dituzten erabiltzaileen konturakoa izango da.



Pertsona fisiko edo juridiko batek baino gehiagok erabiliko balituzte estolderia sare pribatu horiek, erabiltzaile guztiek egin behar dituzte sareok funtzionamendu normala izan dezaten beharrezkoak diren onik zaintzeko edo mantentzeko lanak.

Erabiltzaileek instalazioak onik zaintzeko betebeharrak solidarioa izango dute udalen aurrean eta/edo Partzuergoaren aurrean hala dagokionean; horrela, erabiltzaile bakoitzari betebeharrak hori osorik betetzeko eskatu ahalko diote, hori eragozpena izan gabe eskaera egin zaion erabiltzaileak betebeharrak bera duten gainerakoen aurka berreskaera egiteko, dagokien proportzioan.

8. ARTIKULUA. SANEAMENDU SISTEMARA EGITEA DEBEKATUTA EDO MUGATUTA DAUDEN ISURKETAK.

8.1. Debekuak.

Debekatuta dago Saneamendu Sistemara hauek zuzenean isurtzea:

- a) Honako ondorio hauek ekar ditzakeen guztia:
 1. Nahaste sukoiak edo leherkorrak sortzea.
 2. Instalazioen materialetan korrosioa sortzea.
Buxadurak edo trabak sor ditzaketen jalkinak, koipeak, gai flotagarriak eta abar, ura eragozpenik gabe joatea eta mantentze lanak egoki egitea zailduta.
 3. Instalazioak ikuskatu, garbitu, mantendu edo funtzionarazteko lanetan diharduten langileei lana oztopatzen dieten giro-egoera toxikoak, arriskutsuak edo gogaikarriak sortzea.
 4. Araztegietan egiten diren prozesu eta eragiketetan gorabeherak sortzea, diseinuan aurreikusitako tratamendu mailak lortzea eragotzita.
 5. Arazketaren hondakinak arriskutsutzat jotzera behartzea.
- b) Honako produktu hauek, isurtzen diren kantitateek aurreko paragrafoan aipaturiko ondorioetako bat dakartenean edo sortzen laguntzen dutenean:
 1. Gasolina, nafta, fuel-olioa, petrolioa, olio lurrunkorrek, bentzenoa, toluenoa, xilenoa edo beste edozein solido, likido edo gas sukoi edo leherkor.
 2. Kaltzio karburoa, bromatoa, kloratoak, hidruroak, perkloratoak, peroxidoak, eta beste edozein substantzia ezorganiko solido, likido edo gaseoso, arriskutsua izan badaiteke.
 3. Airean nahaste toxiko, sukoi edo leherkorrek sor ditzaketen gasak edo beste edozein osagai. Horretarako, esplosimetroarekin isurketa Saneamendu Sistemara egiteko deskarga-puntuak egiten diren neurketetan, leherkortasunaren behe-mugaren %10tik beherako balioak lortu beharko dira beti.
 4. Estolderiako atmosferan ondoren adierazten direnen gainerako gas- edo lurrunkontzentrazioak sor ditzaketen substantziak zuzenean edo zeharka isurtzea:

Substantzia	Kontzentrazioa
Amoniakoa	100 ppm
Bromoa	1 ppm
Hidrogeno zianuroa	5 ppm
Kloroa	1 ppm
Sufre dioxidoa	10 ppm
Karbono dioxidoa	5.000 ppm
Karbono monoxidoa	100 ppm
Hidrogeno sulfuroa	10 ppm

5. Sarean lan egiten dutenentzat arriskutsuak izan daitezkeen edo arazo publikoak sor ditzaketen solidoak, likidoak edo gasak, toxikoak edo pozoitsuak, puruak edo beste hondakin batzuekin nahasian.
6. Errautsak, kedarrak, harea, lumak, plastikoak, zura, odola, simaurra, animalien hondakinak, ileak, erraiak eta bestelako gaiak, buxadurak sortzeko edo onik zaintzeko eta garbitzeko lanetan eragozpenak eragiteko modukoak.
7. Disolbatzaile organikoak, pinturak eta koloregaiak, edozein proportziotan.
8. Mineral, landare edo animalietatik egindako olio eta/edo koipeak.
9. Farmazia-industrietatik edo osasun-zentroetatik datozen botatzeko botikak, araztegiatan arazoak sortzeko modukoak.
10. Etxeko edo industriako hondakin-birringailuetatik datozen solidoak.
11. Zapitxo higienikoak eta ehunezko antzeko gaiak.
12. Produktu toxiko edo arriskutsuei buruzko indarreko legedian jasotzen diren produktu guztiak.
13. Debeku hauez gain, 8.2 idatz-zatian, hondakin uretarako zehaztutako gehienezko kontzentrazioen aldetik, zenbait produkturi buruz xedatutakoa bete beharko da.

c) Honako isurketa hauek:

1. Industriako isurketa likido, kontzentratu eta botatzekoak, haien tratamendua berriazko instalazio batean edo instalazio zentralizatu batean egin beharrekoa denean.
2. Isurketa likidoak, baldin eta litekeena bada, tenperaturari buruzko muga beteta ere (kapitulu honetako bertako 1. koadroa), Saneamendu Sistemara dagoen tenperatura-tartean solido edo oretsu bihurtzea.
3. Erregaiak, errektiboak edo lehengaiak biltegitatzeko andelak garbitzean aldizka egiten diren isurketak. Hondakin urak Saneamendu Sistemara ez husteko moduan egingo dira garbiketa horiek.
4. Ur gaziaren isurketak, itsasoan edo itsaso eta lehorraren arteko eremuan egindako bilketei dagozkienak.
5. Diluzio-ura: debekatuta dago erabiltzea, larrialdietan edo arrisku-egoeretan izan ezik.
6. Abeltzaintzako jardueretatik datozen hondakin urak.
7. Eraikuntzako ekipamendu eta materialen garbiketarik datozen agregakinen isurketa.
8. Lur-mugimenduetan edo, oro har, obretan pilaturiko uren isurketa, tratamendurik gabe.
9. Lohiak, hobi septikoetatik edo hondakin uren isurketei aurretratamendua edo tratamendua emateko sistemetatik datozenean, haien ezaugarriak edozein izanik ere.
10. Gaztaren eta esnekien industrietatik datorren gazura.
11. Tratamendu fitosanitarioetatik edo osasun publikoko izurrite-kontrolatik datozen hondakin-saldak edo -likidoak.



8.2. Isurketen muga-balioa (IBM).

Oro har, hondakin uren isurketak I. « Saneamendu sarera egiten diren isurketen muga-balioak» eranskineko tauletan ezarritako isurketen muga-balioen arabera baimenduko dira.

Isurketen mugak gehienezko kontzentrazioei dagozkie, eta ezingo da gainditu zehazturiko balioa. Muga horiek ezingo dira diluzio bidez lortu. Oro har, efluente bakoitzerako beteko dira isurketa puntuan.

Kasu batzuetan, Partzuergoak egunean isurtzen denerako pisu-muga edo karga-muga bat (kg/egun) ezarri ahalko du, kontzentrazio-mugekin batera. Horretarako, Partzuergoak isurketa-baimenean bertan zehaztuko du eguneko karga kuantifikatzeko metodologia.

Partzuergoak I. eranskinekoak baino isurketa-muga txikiagoak ezarri ahalko ditu isurketa-baimenean, saneamendu-instalazioen kudeaketa globalari loturik, hori justifikatzeko moduko arrazoi bereziak daudenean, hala nola, kutsatzaile jakin batzuen balantze orokorrak, kalitate-helburu batzuk erdiesteak, edo Europako, Estatuko edo autonomia-erkidegoko araudia betetzea. Partzuergoak arrazoi horiek aintzat hartu, eta dagokion erabakia hartuko du.

Isurketa-mugak ezarri ahalko dira lehentasunezko substantzietarako, substantzia preferenteetarako eta beste kutsatzaile batzuetarako, araztegiarako isurketei edo araztegien hondakinen kudeaketari aplikatzekoa zaien Europako, Estatuko edo autonomia-erkidegoko araudiari jarraituz. II. eranskinen, mugatu ahalko diren konposatuak adierazten dira.

8.3. Saneamendu Sistemara egiten diren isurketek eragindako kalteak edo trabak.

Dituen ezaugarriak direla medio, isurketa batek kalteak eragiten baditu Saneamendu Sistemako instalazioetako batean edo garbitzera behartzen badu, egindako arau-hausteez gain (halakoei dagokien zehapena ezarriko zaie, zehapen-prozedura aurrera eraman eta gero), isurketa egin duenak bere gain hartu beharko ditu konponketak edo garbiketarako eraginiko gastuak. Dagozkion lanak instalazioaren titularrak edo eragileak berak egingo ditu, momentuko egoeraren arabera Partzuergoak eskatutakoarekin bat etorrituz.

Partzuergoaren titulartasuneko saneamendu-instalazioetan erabiltzaileen jardueren ondorioz eragin daitezkeen ingurumen-kalteak edo trabak estalita eduki ditzaten, Partzuergoak eskatu ahalko die erabiltzaile horiei finantza-berme bat edo aseguru bat izenpetzeko, horrelakoa eskatzen duten jarduerak aurrera eramatean izan dezaketen ingurumen-erantzukizuna estaltzeko, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean eta aplikatzekoa den ingurumenari buruzko gainerako araudian xedatutakoaren ildotik.

9. ARTIKULUA. AURRETRATAMENDUA.

Hondakin urek Ordenantza honetan Saneamendu Sistemara isurketa egiteko ezartzen diren mugak betetzen ez badituzte, erabiltzaileak aurreko tratamendua eman beharko die, Saneamendu Sistemara gero isuri ahal izateko, hala badagokio.

Hondakin ur horien aurretratamendurako behar diren instalazioak estolderia sare pribatuaren zati izango dira, eta isurketa-baimenerako eskabidean behar bezala definituko dira. Dagozkion proiektua eta haren eraginkortasuna justifikatzeko azterlan eta kalkuluak erantsiko zaizkio eskabide horri.

Aurretratamendurako instalazioak eskura daitekeen teknologiarik onena erabiliko du –ETO- (nazioartean BAT deitutakoa), edo, behintzat, gehiegizko kosturik gabe eskura daitekeen teknologiarik onena (nazioartean BATNEEC deitutakoa). Partzuergoaren ingurumen-helburuetako bat industria sorburu duten kutsadura-kargak murriztu daitezen eta prozesuko urak berrerabil daitezen sustatzea denez, erabiltzaileari eskatu ahalko zaio bere eragiketen ebaluazioa egin dezala, sortzen duten efluenteari dagokionez, eta txosten bat egin dezala sortzen den efluente-kantitatea gutxitzeko moduei buruz. Txosten horrek urtebeteko epean egongo beharko du Partzuergoaren esku, isurketa-baimena onartzen denetik zenbatzen hasita.

Salbuespenez, zenbait erabiltzaile elkartzen direnean beren isurketen aurretratamendua batera egiteko, baterako azken efluentearako isurketa-baimena lortu beharko dute, erkidego hori osatzen duten erabiltzaile guztiak adierazirik. Isurketa-baldintzak betetzeko erantzukizuna erabiltzaile-erkidegoarena izango da, eta, solidarioki, erabiltzaile haietako bakoitzarena.

Edozelan ere, isurketa-baimenerako baldintza izango da aurretratamendua eraginkorra izatea. Lortu behar diren emaitzak lortuko ez balira, beraz, baimen hori ondorioz gabe geratuko litzateke, eta hondakin ur horiek Saneamendu Sistemara isurtzea, debekaturik.

10. ARTIKULUA. INDUSTRIAKO HONDAKIN URAK DEUSEZTATZEKO BESTE MODU BATZUK.

Hondakin urak ezin badira atxiki Ordenantza honen arabera Saneamendu Sistemara isurketa egiteko finkatuta dauden muga barruan, ezta aurretratamendu egokia emanik ere, interesdunak ur horiek sortzen dituen jarduera utzi beharko du, edo beharrezkoak diren aurreneurriak hartu beharko ditu, beharrezko obrak eginez edo instalazioak jarritz, haien bidez Saneamendu Sistemara onartu ezin diren hondakin urak biltegitzeko eta beste bide batzuk erabiliz gune zentralizatu batera eramateko, edo bestelako instalazio berezi batera edo segurtasun-biltegi batera, indarreko araudiari jarraitzen dion azken helburu egokia bermatzeko moduan, betiere.

Ondorio horietarako, interesdunak Saneamendu Sistemara isurketa ez egiteko isurketa-dispentsa eskatu beharko du, eta, eskabidearekin batera, azterlan bat aurkeztuko du Saneamendu Sistemara isurketa ezin duela egin frogatzeko; halaber, agintaritzaren eskudunak eskatutako instalazioen proiektua aurkeztuko du, halakorik eskatu badio.

Saneamendu Sistemara isurketa ez egiteko isurketa-dispentsa ematean zehazturiko maiztasunarekin, interesdunak bere egoera justifikatu beharko du, isurketa deuseztatzeari dagokionez.

11. ARTIKULUA. LARRIALDIAK.

Larrialdia gertatzen denean, istripua dela kausa zein zerbait oker erabiltzea dela kausa estolderia sarera isurketa debekatuak eginda, erabiltzaileak berehala eman beharko dio horren berri Partzuergoari, hala telefonoz nola idatziz (posta elektronikoa, faxa, etab.), eta azken horrek dagokion udalari jakinaraziko dio gertatu den egoera, eragin daitezkeen kalteak edo trabak saihestu edo gutxitzeko.

Horrez gain, larrialdiaren eragileak, 48 orduko gutxieneko epean, Partzuergoari istripuari buruzko txosten xehatua helarazi beharko dio. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek jasoko dira:

- a) Eragilearen identifikazioa.



- b) Gorabehera gertatu den puntuaren kokapena, isurketaren ibilbidea edo ustez izan duen ibilbidea, eta saneamendu sarera isurtzen den puntua.
- c) Isuritako gaiak eta haien bolumena.
- d) Gorabeheraren kausak; gertatu zen ordua.
- e) Gorabeherak zenbat iraun duen.
- f) Eragindako ondorioen kalkulua.
- g) Zuzentzeko hartu diren neurriak.

Erabiltzaileak ahal duen guztia egingo du larrialdiaren eragina gutxitzeko. Halaber, Larrialdi Plan bat izanez gero, plan horretan jasoriko ekintza zuzentzaileak aplikatuko dira.

Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa betetzeak ez du erabiltzaile eragilea salbuetsiko indarrean den araudiaren arabera eska dakizkiokeen erantzukizunetatik.

Idatz-zati honetan aipaturiko istripuek dakartzaten eragiketen gastuak (garbitzea, kentzea, sareak eta instalazioak konpontzea, edo bestelakoak), istripua eragin duen erabiltzaileari egotziko zaizkio. Hark ordaindu beharko ditu halakoak, bere gain hartu beharreko beste erantzukizunez gain.

Kalteei edo eragindako trabei buruzko espedientea eta halakoen balioztapena Udalak egingo du udal estolderia sareei dagokienez, eta Partzuergoak, lehen mailako sareei eta araztegiei dagokienez.

Partzuergoak erabiltzaileei berriazko larrialdi-plana egin dezatela eskatu ahalko die, saneamendu sarera isurketa likido bat egiteak izan ditzakeen ondorioak minimizatzeko helburuarekin. Plan horretan, enpresak aurrera eramango dituen ekintzak zehaztuko dira, iragazketak, jarioak, bandalismoa, suteak eta bestelako gorabehera batzuk gertatuz gero, alegia, kolektorera baimendu gabeko isurketak egitea eragin dezaketzen gertaeren kasuetarako. Larrialdi-plana isurketa-baimenaren zati izango da.

III. KAPITULUA. SANEAMENDU SISTEMARA EGITEN DIREN ISURKETEN IKUSKAPENA ETA ZAINZA.

12. ARTIKULUA. IKUSKAPENA ETA ZAINZA.

Partzuergoak eramango ditu aurrera ikuskapena eta zaintza egiteko funtzioak, bai lehen mailako sarera egiten diren isurketei dagokienez, bai udal estolderia sarearen bidez egiten direnei dagokienez. Udalek parte hartu ahalko dute, hala eskatuz gero, ikuskapena eta zaintza egiteko lanetan. (III. Eranskinaren F(PNT-ExSa-VE-GC-01)15 imprimakia).

Jarduerek saneamendu sarera isurtzen dituzten efluenteetatik laginak hartzeari dagokionez, ikuskatzaileek ofizioz jardungo dute, beren ekimenez dela zein zerbitzuak emandako jarraibideen ondorioz dela, edo, bestela, salaketa baten ondorioz ere jardungo dute, isurketaren titularrarekin akordio formalik egin beharrik gabe, jardueraren efluentearen ezaugarriak zehazteko.

Ikuskapena eta zaintza egiteko funtzioen barruan dago, orobat, sarerako hartuneetan edo erabiltzailearen instalazioetan Partzuergoaren gailuak jartzea, isurketaren emariari eta kalitateari buruzko datuak denbora errealean eta etengabe neurtu, biltegiratu eta telekomunikatzeko. Gailu horiek behar bezala identifikaturik egongo dira, eta haien kokapena, modu frogagarrian egiaztatuturik.

Partzuergoak bere gailuek etengabe egindako neurketen fidagarritasuna bermatzen du, kalibratze-programan baten bidez; erabiltzaileak eskuragarri izango du aipatutako programa.

13. ARTIKULUA. INSTALAZIOETAN SARTZEA.

Ikuskapena eta zaintza egiteko funtzioak ondo betetzeko, halakoetan jardun behar duten langileek, behar bezala kreditatuta, sarrera askea izango dute hondakin uren isurketari loturik erabiltzaileak dituen instalazio guztietan, jabetza-eskubideari kalterik sortu gabe, betiere.

14. ARTIKULUA. IKUSKAPEN ETA ZAINZAKO JARDUERAK.

Ikuskapen eta zaintzako lanetan honako jarduera hauek egingo dira:

1. Barne-sareen eta instalazio osagarrien egoera egiaztatzea (ponpaketak, aurretratamenduak, eta abar).
2. Laginak hartzea, isurketa orokorretik zein azken hori osatzen duten oinarrizko isurketetatik. Era berean, euri-eurietatik ere hartu ahalko dira laginak, hondakin uretatik bereiz hustu arren.
3. Emariak neurtzea, banakako isurketenak zein isurketa orokorrarena.
4. Prozesuetan sartzen diren ur-bolumenak neurtzea.
5. Erabiltzailearekin, ur-balantzea egiaztatzea: sare publikoko urak, erabiltzailearen baliabide propioak eta beste ur-hartune batzuk.
6. Argazkiak eta bestelako irudi grafikoak hartzea, sekretu profesional eta komertzialari buruzko nahiz jabetza industrialari buruzko araudian xedatutakoa aintzat hartuz, betiere.
7. Efluenteen kontrolerako isurketa-baimenean ezarritakoaren arabera instalatuta, emariari eta isurketaren kalitateari buruzko datuak denbora errealean eta etengabe neurtu, biltegiratu eta telekomunikatzeko gailuen egoera, instalazioa eta funtzionamendua egiaztatzea.



8. Erabiltzaileak bere isurketa-baimenean ezarritako baldintzak betetzen dituen egiaztatzea.
9. Ordenantza honek, hondakin uren isurketei buruz, ezartzen dituen eta erabiltzaileari dagozkien gainerako betebeharrak betetzen diren egiaztatzea.
10. Erabiltzailearen instalazioetan edo saneamendu sarerako hartuneetan Partzuergoaren jabetzako gailuak jartzea, isurketaren emariari eta kalitateari buruzko datuak denbora errealean eta etengabe neurtu, biltegitatu eta telekomunikatzeko; etengabean egindako neurketetan programatutako alarmen mugak gainditzeagatik, lagin-hargailu automatikoak abiarazi ahalko dira.

15. ARTIKULUA. JARDUERAK JASOTA UZTEA.

Kontrol, ikuskapen eta zaintzako jarduera orok, isurketaren titularra presente dagoela eginik, akta bat bete dadin eragingo du (III. eranskineko F(PNT-ExSa-VE-GC-01)13 inprimakia); erabiltzailearen ordezkariak eta jardueran parte hartu duen ikuskatzaileak izenpetuko dute, eta honako hauek jasoko ditu: eguna eta ordua, egin diren jarduerak, jardueron emaitza, eta batak zein besteak egin nahi dituzten adierazpenak.

Kopia bana izango dute erabiltzaileak eta Partzuergoak. Bisitarengatik sortzen den dokumentazio gehigarriaren kopia bat ere jasoko du erabiltzaileak.

Erabiltzailearen instalazioetan edo saneamendu sarerako hartuneetan, isurketaren emariari eta kalitateari buruzko datuak denbora errealean eta etengabe neurtu, biltegitatu eta telekomunikatzeko Partzuergoaren jabetzako gailuak jartzea izan denean jarduera hori, erabiltzaileak bildutako datuen kopia bat jasoko du, bai eta lagin-hargailu automatikoz harturiko laginekin sortutako analisi-txostenak ere, halakorik sortzen bada.

Industria-isurketa bakoitzaren kontrol-lanetan sortzen diren analisi-txostenen kopia bidaliko dio Partzuergoak isurketa sortzen duen jarduera kokaturik dagoen tokiko Udalari.

16. ARTIKULUA. AUTOKONTROLA.

C eta D motetako erabiltzaileak sailkatutakoek autokontrol-sistema bat jarri ahalko dute beraiek egiten dituzten isurketak kontrolatzeko.

Programa hori abian jarri nahi duen erabiltzaileak Partzuergoari aurkeztuko dio bere autokontrol-proposamena. Onarturiko autokontrol-programa isurketa-baimenaren zati izango da.

Partzuergoak, isurketa baten ezaugarriengatik komenigarria denean, autokontrol-programa bat eta/edo parametro jakin batzuen neurketa etengabea eskatu ahalko dizkio erabiltzaileari.

Autokontrol-programa gauzatzean lortzen diren datuak eduki beharko den berariazko erregistro-liburu batean jasoko dira, isurketaren inguruan gertaturiko gorabehera eta egindako jarduera guztiekin batera. Datu horiek, egiten diren ikuskapenak egiten direla, Partzuergoari emango zaizkio, berak ezarritako formatuan eta maiztasunarekin, eta beharrezkotzat jotzen diren egiaztapenak egin ahalko zaizkie.

17. ARTIKULUA. ISURKETAREN JARRAIPEN ETENGABEA ETA TELEKONTROLA.

Partzuergoak, isurketa baten ezaugarriengatik komenigarria denean, erabiltzaileari eskatu ahalko dio gailuak jar ditzala, bere kontura, isurketaren emariari eta kalitateari buruzko datuak denbora errealean eta etengabe neurtu, biltegiatu eta Partzuergoari telekomunikatzeko.

Gailu horiek, Partzuergoak hala eskaturik, azken efluenteari eragin ahalko diote, isurketa-baimeneko baldintzak betetzen ez dituzten isurketak saihesteko.

Aipatutako gailuak aldiaren behien eta era egokian kalibratuko eta mantenduko dira. Isurketaren titularra den erabiltzaileak kalibratzeko eta mantentzeko plan bat ezarriko du, eta plan hori betetzen dela dagozkion agiritan jasota geratu beharko du, Partzuergoak egiten dituen ikuskapenatarako.

18. ARTIKULUA. LAGINAK.

1. Laginketak.

Lagina da dena delako isurketa modurik zehatzenean ordezkatzeko duen ur-neurri oro.

Laginaren adierazgarritasunari eragin diezaioketen alderdi guztiak kontuan izanez egingo da laginketa.

Lagin-mota hauek analiza daitezke:

- a) Lagin bakunak: lagin puntual eta diskretuak, laginketa egiten den unean isurketan nagusi diren baldintzen adierazgarri direnak.
- b) Lagin konposatuak: denboran zehar lorturiko laginak, laginketa etengabearen bidez edo lagin diskretuak homogeneizatuz. Hondakin uraren batez besteko konposizioari buruzko datuak ematen dituzte, laginketa egin den aldirako.

Laginak leku egokian hartuko dira, hondakin urak beste erabiltzaileenekin nahasi aurretik.

C motako erabiltzaileei dagokienez, laginketa-puntu globala 3. artikuluan definituriko kontrol-estazioa edo -estazioak izango dira; hala ere, egokitzat jotzen den kasuetan, banakako isurketa batzuetatik laginak hartu ahalko dira, kontrol-estazioan erabiltzaile beraren beste isurketa batzuekin nahasi baino lehen, edo saneamendu sarerako hartuneetan ere hartu ahalko dira isurketen laginak. Halako erabiltzaileentzat, kontrol-estazioa edo -estazioak bat etorriko dira 31. artikuluan ezarritakoarekin. Haien definizioa isurketa-baimenean gehituko da.

2. Laginak biltzea eta gordetzea.

Laginak hartu, gorde eta garraiatzean, Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren IT(PNT-ExSa-VE-GC-01)03 Jarraibidean ezarritako arauak izango dira kontuan, bai eta UNE EN ISO 5667-3 Arauan (Ur laginak kontserbatu eta manipulatzeko gidaliburua) ezarritakoak eta, halakoak ondo aplikatzeko, Partzuergoak etorkizunean ezartzen dituen gainerako guztiak ere.



Laginketa-puntuak xehetasunez deskribatuko dira, planoak, krokisak, argazkiak eta abar baliatuz, argiro eta ezin nahasizko eran identifikatzea ahalbidetzeko moduan.

Laginketa egin ahalko da, bai ikuskatzaileak erabiltzaile baten instalazioan egindako bisitan, bai laginketa era automatikoan abiaraziz, Partzuergoak isurketaren emariari eta kalitateari buruzko datuak denbora errealean eta etengabe neurtu, biltegiratu eta telekomunikatzeko gailuak instalatzen dituenean.

Lagina ikuskatzaileak erabiltzaile baten instalazioan bisita egiten duenean hartzen denean, laginketa erabiltzailearen ordezkari bat presente dagoela egingo da, salbu eta erabiltzaileak horri uko egiten badio; kasu horretan, ukoa berariaz jasoko da aktan.

Ikuskatzaile batek erabiltzaile baten instalazioak bisita egitean biltzen diren lagina, erabiltzaileak hala eskatuz gero (hala bada, dagokion aktan adieraziko da), hiru zatitan banatuko dira, eta erabiltzaileak eskubidea izango du haien artean aukeratzeko zein bereziki eta beretzat hartu –kontraesanekeo analisia egiteko–, zein izango den Partzuergoarentzat, eta zein geratuko den analisi erabakigarri bat egiteko, halakoa beharrezkoa izanez gero. Hiru lagina era fede-emailean identifikaturik geratuko dira, erabiltzailearen izenpearekin eta egindako aukeraketa deskribatzen duen idazkun batekin. Kontraesanekeo lagina, hala identifikaturik, erabiltzaileari eskuratuko zaio edo, hori posible ez bada, eskuragarri izango du lagina hartu diren egunaren ondorengo bost egun baliodunetan Partzuergoaren laborategian, edo zehazten den beste batean, kontraesanekeo analisia egiteko, egitea erabakitzen badu. Hirugarren lagina zigilatu egingo da, eta Partzuergoaren laborategian geratuko da, analisi erabakigarria egiteko, egitea beharrezkoa bada.

Partzuergoaren lagina analizatzeko, bai eta hirugarren lagina erabakigarria analizatzeko ere –haren analisia beharrezkoa denetan–, Ordenantza honetan zehazten diren metodoak erabiliko dira.

19. ARTIKULUA. ANALISIA.

Kontroleko analitikak egiten dituzten laborategiak ziurtapeneko erakunde batek emandako ziurtagiria izan beharko du saiakuntza-laborategi gisa, UNE-EN ISO/IEC 17025 arauarekin bat etorriz, laborategian saiakuntzak egiteko, martxoaren 23ko MAM/985/2006 Aginduko 1. eranskinaren ildotik (ur-arloko administrazioen erakunde laguntzaileen araubide juridikoa garatzeko agindua, uren kalitatearen kontrol eta zaintzari nahiz jabari publiko hidraulikora egindako isurketen kudeaketari dagokienez).

«Isurketen muga-balioak» taulan dauden parametroetako erreferentziako analisi-metodoak 4. eranskinean adierazten dira. Taulatan jaso ez diren substantzia kutsatzaileetarako, erreferentziako analisi-metodologia eta kuantifikazio-mugak hartuko dira aintzat.

Edozelan ere, aipatutako parametroak analizatzeko erabiltzen diren metodoak nazioarteko arauarekin bat etorriko dira, edo pareko informazio kalitadeduna nahiz konparagarritasun zientifikoa ematea bermatzen duen beste edozein arau nazional edo nazioartekorekin.

Parametro fisiko-kimikoei lotutako mugen betetze-maila zehazteko erreferentziako analisi-metodoak nazioarteko arauarekin bat etorriko dira, edo pareko informazio kalitadeduna nahiz konparagarritasun zientifikoa ematea bermatzen duen beste edozein arau nazional edo nazioartekorekin, eta oinarritzat

%50eko edo gutxiagoko neurketa-ziurgabetasuna izango dute ($k=2$), kuantifikazio-mugaren mailan kalkulaturik, kuantifikazio-mailaren balioa kutsatzailearen isurketa-mugaren %30 edo gutxiago dela.

Aurreko irizpideak betetzen dituen analisi-metodori ez badago, eskura dauden teknikarik onenei jarraituz egingo dira analisiak, kostu neurrigaberik eragin gabe, betiere.

20. ARTIKULUA. ADOSTASUNIK EZ ANALISIEN EMAITZEKIN.

Baldin eta analisisien emaitzekin adostasunik ez badago, Partzuergoak egingo diren laginketen modua eta mota ezarriko ditu, bai eta zehaztu beharreko parametroak ere, egingo den laborategi akreditatuaz gain. Laginketaren edo laginketen kostua zein egiaztatze-analisia erabiltzaileak ordaindu beharko du, lortzen den emaitza lehen emaitzatik %20an baino gehiagoan aldatzen ez bada.

IV. KAPITULUA. KUTSADURA-KARGA

21. ARTIKULUA. KUTSADURA-KARGA ZEHAZTEA.

Isurketa baten kutsadura-karga zuzeneko neurketaz zehaztuko da, eta, horretarako, honako pauso hauek emango dira:

1. Informazioa lortu.
 - a. Ezaugarritatze-plan bat egin.
 - b. Lagin eta analisi bidez ezaugarritu.
 - c. Datuak aztertuz kutsadura-karga zein den ezarri, eta hori txosten batean jaso.
2. Kutsadura-karga globala kalkulatu.
 - a) Bolumena.

Honako hauek zenbatuko dira:

1. Hornidura sare publikotik hornitzen den ur-bolumena.
2. Baliabide propioetatik datorren ur-bolumena, kontagailuz neurtua (gainazaleko hartuneak, emakidak, iturburuak, putzuak eta abar).
3. Zenbatu beharreko euri-uraren bolumena, drainatze-azalerari 1.200 mm-ko urteko prezipitazio-tasa aplikatuz lortuta, azaleko jariatze-uraren koefizientea 0'85 dela azal iragazgaiztu eta zolatueterako, eta 0'50 gainerako azaletarako.
Euri-uraren bolumena zenbatu beharko da, estolderia sare publikotik desbidera daitekeen arren, hara isurtzen denean.
Era berean, zenbatu beharrekoa izango da, desbideratu ezin, eta gainerako hondakin urekin batera isurtzen denean.
4. Galtzen den edo produktuan gehitzen den ur-bolumena.
5. Isurtzen den uraren bolumena.



Hornidura sare publikotik ez datozen ur-bolumenak kalkulatzeko, bai eta hainbat kontsumo-puntutako bolumenak ere, horretarako behar diren neurgailu integratzaileak instalatu beharko dituzte erabiltzaileek.

A motako erabiltzaileei dagokienez, isuritako uren bolumena hornitzen den uren bolumenarekin bat datorrela ulertzen da. B motako erabiltzaileen kasuan, gauza bera ulertuko da, kontrako froga fedemailea egon ezean.

b) Kutsadura-karga globala.

1. A eta B motetako erabiltzaileak.

Erabiltzaile horien kasuan, kutsadura-karga zein den jakiteko, guztira hornitutako ur-bolumenei honako kontzentrazio hauek aplikatuko zaizkie:

OEK (oxigeno-eskari kimikoa): 500 mg/l

Solido esekiak, guztira: 450 mg/l

Konp. nitrogenatuak (NTK): 58 mgN/l.

Nitrogeno amoniakala (N-NH₃): 40 mgN/l.

Gai inhibitzaileak (Toxikotasuna): O equitox/m³

2. C motako erabiltzaileak.

Erabiltzaile hauen kasuan, hauxe hartuko da kontuan:

1. Prozesuetako hondakin uren kutsadura-karga, 21.1 paragrafoko prozeduren bidez zehaztuta.
2. Zerbitzuetako uren kutsadura-karga zehazteko, aurreko paragrafoan ezarritako kontzentrazioak 75 l/enplegu/eguneko hornidura bati esleituko zaizkio.
3. Euri-urak, printzipioz, kutsatu gabeko urtzat joko dira. Hala ere, kontrola egingo zaie. Erabiltzaileak kontuan izango du hautemateko moduko kutsadurarik ez egotea bermatuko dituzten prebentzio-neurriak aplikatzea.

3. Kutsadura-karga eguneratzea.

Erabiltzaile baten isurketak ezaugarritu ondoren, Partzuergoak haien kontrola egingo du aldiari behin, bi helburu hauek lortzeko, isurketa-baldintzak betetzen direla egiaztatzea. Isurketa-baimeneko 5. atala eta kutsadura-kargaren bilakaerari buruzko datuak izatea.

Kutsadura-karga sei hilean behin eguneratuko da; seihileko horretan lortutako datuen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da horretarako.

Emaitza-sail batean Partzuergoaren ustez emaitzetako bat atipikoa bada, kutsadura-kargaren kalkulatik baztertuko da, eta haren ordean beste laginketa bat egitea erabaki daiteke.

22. ARTIKULUA. POPULAZIO BALIOKIDEA KALKULATZEA.

Populazio baliokidea zehazterakoan, hiriko hondakin uren tratamenduari buruzko 1991ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 91/271/EEE Zuzentarauan xedatutakoari jarraituko zaio:

Bost (5) eguneko oxigeno-eskari biokimikoa (OEB₅) duen karga organiko biodegradagarria, eskaria eguneko 60 g oxigeno dela.

V KAPITULUA. ISURKETA-BAIMENA

23. ARTIKULUA. ISURKETA-BAIMENA

Hondakin urak Saneamendu Sistemaren bidez husteko, edo araztegiatara zuzenean isurtzeko, Ordenantza honetan xedatzen denaren arabera, Partzuergoaren baimena behar da, eta haren helburua da erabilera hori ezarritako arauekin bat etortzea eta hondakin uren konposizioa zein ezaugarriak finkatu diren mugen barruan atxikitzea. Baimen horri isurketa-baimena deritzo.

Hondakin urak, Saneamendu Sistemara isuri beharrean, beste bide batzuetatik eta beste prozedura batzuekin husteko, isurketa-dispentsa behar da, Ordenantza honetako 4. eta 10. artikuluetan ezarritakoa aintzat harturik.

24. ARTIKULUA. ISURKETA-BAIMENAREN EZAUGARRIAK

Isurketa-baimenarekin, Saneamendu Sistema erabiltzeko baimena ematen da, erabiltzaileak sorturiko hondakin urak huts daitezten, baimenean bertan ezarritako baldintzak betez.

Isurketa-baimena, berez duen izaera autonomoaz gain, bete beharreko baldintza da merkataritzako edo industriako jarduerak ezarri eta abian jartzeko behar den udal jarduera-lizentziarako edo irekitzeko lizentziarako. Hala, bada, isurketa-baimena aldi baterako edo behin betiko baliorik gabe geratuz gero, udal-lizentzia ere hala geratuko da, eta jarduera utzi beharko da.

25. ARTIKULUA. SAILKATZEA ETA IZAPIDETZEA.

A) Isurketa-baimena.

Isurketa-baimena lortzeko, honako izapide hauek bete beharko dira:

1. Etxebizitzetako erabiltzaileak, A motako erabiltzaileak.

Lehen erabilerako udal-lizentzia ematean, A motako erabiltzaileei isurketa-baimena ere ematen zaiela ulertuko da inplizituki.

2. Etxebizitzetakoak ez diren erabiltzaileak.

Etxebizitzetakoak ez diren erabiltzaileek udal jarduera-lizentzia izapidetu aurretik lortu beharko dute kolektorerako isurketa-baimena, salbu eta artikulua honetan B motako erabiltzaileen kasuan ezarritakoa.

Erabiltzaileek lizentzia lortzeko aurkeztu duten dokumentazioan kolektorerako isurketa-baimena egongo da.

Kolektorerako isurketa-baimena eskuratzeko eskaera Ordenantza honetako 1. eranskineko F(PNT-ExSa-VE-GC-01)14 inprimakia bete aurkeztuz egingo da.

Isurketa-baimenerako eskabidean jartzen den informazioarekin, Partzuergoak erabiltzaileak sailkatuko ditu, hamar eguneko epean, eskabidea jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.



3. B motako erabiltzaileak.

B motako erabiltzaileentzako isurketa-baimena udal lizentzia-baimenean edo erantzukizunpeko adierazpenean edo aurretiazko jakinarazpenean, hala dagokionean, inplizituki doala ulertuko da, bizitegitarako hiri-lurzoruan kokaturik dauden eta ura langileen garbigela eta komunetarako bakarrik erabiltzen dituzten jardueretarako.

Aurreko lerroaldean adierazitako jarduerak komunetarako ez bestelako erabileretarako ura erabiltzen badute, eta, nolana ere, bizitokirako hiri-lurzoruan ez beste lurzoru batzuetan kokatutako gainerako jardueren kasuan, aipatutako Lizentziak eman baino lehen edo Adierazpen Erantzulea edo Aurretiazko Jakinarazpena aurkezten den unean, Udalak titularrari jakinarazi beharko dio nahitaezkoa dela Isurketa Baimena izapidetzea Partzuergoarekin; horretarako proiektu teknikoaren ale bat aurkeztu behar dio Partzuergoari edo, bestela, estolderia-sare pribatua eta sare publikoarekin bat egiten duen adarra jasotzen dituen zatia, garatuko den jardueraren xehetasunarekin eta horrek hondakin uren gainean izango duen eraginarekin.

Dokumentazio hori jaso ondorengo zortzi egun baliodunen barruan (hartu izanaren adierazpena ere egingo du), Partzuergoak sailkapen hori baieztatu beharko dio udalari, eta, hori horrela, udalak bere lizentzia eman ahaliko du, hala badagokio.

Epe berean, egokia balitz, Partzuergoak udalari adieraziko dizkio erabiltzaileari beste sailkapen bat emateko arrazoiak, eta, hori horrela, isurketa-baimena sailkapen horri dagokion moduan izapidetuko da (1. eranskineko F(PNT-ExSa-VE-GC-01)10 inprimakia).

Halaber, egokia balitz, Partzuergoak udal-lizentzian sartu beharreko berariazko baldintzak edo erabiltzaileak aurkeztu beharreko agiri osagarriak jakinaraziko ditu epe horretan. Horrelako agiri-eskaera egiten badu, epea eten egingo da, eta beste bat irekiko da proiektua osatu eta Partzuergoak jaso ondoren,

Zortzi eguneko epean Partzuergoak ez badu ezer adierazten, sailkapenarekin eta isurketa-baimena ematearekin ados dagoela ulertu beharko da.

Lizentzia eskatzerik behar ez duten jarduerari dagokienez, udalak Partzuergoari aurkeztu den proiektu teknikoaren kopia bat bidaliko dio, erantzukizunpeko adierazpenarekin edo aurretiazko jakinarazpenarekin batera.

4. C motako erabiltzaileak.

C motako erabiltzaileek Partzuergoari eskatu beharko diote isurketa-baimena, horretarako dagoen eredia erabiliz. Ereduarekin batera, beren jarduerari, hondakin uren ekoizpenari eta bolumen eta ezaugarriei buruzko galdera-sortak aurkeztuko dituzte, behar bezala beterik, bai eta proiektu teknikoa ere, establezimenduari, estolderia sare pribatuari eta Ordenantza honek eskatzen dituen elementuei dagozkien alderdiak jasota bertan.

Hondakin urak aurrez tratatu behar izanez gero, instalazioei buruzko proiektu teknikoa aurkeztuko da, eta ondorioak egokiak izango direlako justifikazioa emango da.

Udal-lizentziaren eskabidearekin batera, Partzuergoak emandako isurketa-baimena aurkeztu beharko du interesdunak, eta halakorik ezean, ez da lizentzia izapidetuko.

Partzuergoak bi hilabeteko epea izango du baimenari buruzko erabakia hartzeko. Interesdunari datu gehiago eskatuz gero, epea eten egingo da.

Baimena (III. eranskineko F(PNT-ExSa-VE-GC-01)11 inprimakia) baldintza jakin batzuk ezarririk eman ahalko da, edo ezezkoa eman ahalko zaio, eta erabiltzailearen sailkapena jasoko da baimenean bertan.

Baimena besterik gabe ematen denean, eskabidean agertutakoei zorrotz atxikitzen zaizkiola esan nahi du horrek.

Baimenean baldintzak jartzen direnean, halakoek eskabideari funtsezko aldaketarik eragiten ez badiote baino ez da posible izango hori; horrenbestez, xehetasunezko aldaketak eta garrantzi txikikoak izan beharko dute beti.

Baimenari emandako ezezkoa, ematen zaion kasuetan, arrazoitua izango da; hala, horretarako arrazoiak azaldu beharko dira, eta, zuzenduz gero, baimena emango da.

Hartzen den ebazpena, baimena ematen denean, dagokion udalari jakinaraziko zaio, eta azken horrek bere lizentzian sartuko du, halakoa emateko baldintza gisa. Ezezkoa emateko ebazpena denean, udal-lizentzia ez ematea eragingo du horrek.

Baimena eman, eta Partzuergoak instalazioa nahiz hondakin uren ekoizpena baimenaren arabera direla egiaztatu ondoren, interesdunari eta dagokion udalari hori horrela dela jakinaraziko die; izan ere, jakinarazpen hori jaso baino lehen, udalak ezingo du eman jarduera irekitzeko edo abian jartzeko baimena.

B) Isurketatik salbustea.

Hondakin urak Saneamendu Sistematik kanpo isurtzeko behar den isurketa-dispensatza III. eranskineko F(PNT-ExSa-VE-GC-01)12 inprimakia) C motako erabiltzaileentzat xedatutakoari jarraituz izapidetuko da, eta agintaritzak eskudunak ur-ingurunera isuri ahal izateko emandako baimena baduela Partzuergoaren aurrean ziurtatu ondoren abiatuko da.

26. ARTIKULUA. ISURKETA-BAIMENA ETA DISPENSATZA ALDATZEA, IRAUNGITZEA ETA ONDORIORIK GABE GERATZEA.

Partzuergoak isurketa-baimena iraungi dela deklaratu du ondorengo kasuetan:

1. Urtebetetik gorako tarte batean isurketarik egiten ez bada.
2. Hondakin urak sortzen dituen merkataritzako edo industriako jardueran aritzeko udal-lizentzia iraungitzen, deuseztatzen edo baliogabetzen bada.

Partzuergoak isurketa-baimena edo isurketa-dispensatza ondoriorik gabe utziko ditu ondorengo kasuetan:

- 1) Erabiltzaileak isurtzen dituen hondakin uren ezaugarriek Ordenantza honetan ezarritako debekuak eta mugak, edo isurketa-baimenean berariaz finkatutakoak, betetzen ez dituztenean, eta zuzentzeko eskaera eginda ere horrela irauten badute.



- 2) Isurketa-baimenean edo Ordenantza honetan erabiltzaileari ezartzen zaizkion beste baldintza edo betebeharrak batzuk betetzen ez dituztenean, baldin eta justifikaturik badago isurketen larritasunagatik edo erabiltzaileak behin eta berriro betetzeari uko egiteagatik.
- 3) Kontraesaneko espediente baten bidez deklaratu da isurketa-baimenaren edo isurketa-dispensaren iraungipena edo ondorio-galera, eta Saneamendu Sarera isurketak egiteko debekua ekarriko du horrek. Orobat, ahalmena emango dio Udalari edo Partzuergoari, kasu bakoitzean dagokionari, isurketa horiek fisikoki galarazteko egin beharreko obrak gauzatzeko, bai sare horretan, bai erabiltzailearen sare pribatuan, edo dagokion ur-hornidurako kontratua deuseztatzeko.
- 4) Aurreko paragrafoetan aipatutako iraungipena edo ondorio-galera gertatuz gero, hondakin urak sortzen dituen jarduera itxi egingo da.

Partzuergoak isurketa-baimenaren aldaketa izapidetuko du ondorengo kasuetan:

- 1) Araudiaren eskakizunek Ordenantzako 8. artikuluari eragiten diotenean.
- 2) Aurreko baimenaren titulartasuna aldatzen denean.
- 3) Isurketen bolumenean edo elementu kutsatzaileetako batean aldaketak gertatzen direnean, %10tik gorako ehuneko batean, aurreko isurketa-baimenaren aldean.
- 4) Ekoizpen-prozesuetan eta biltegiatze-eremuetan aldaketak gertatzen direnean, aurreko isurketa-baimenean zehazturiko efluentearen ezaugarriak aldaturik.
- 5) C motako erabiltzaileentzat, aurreko isurketa-baimena onartu zenetik 5 urte igaro direnean. Hala eta guztiz ere, isurketa-baimena urtez urte luzatuko da, behin iraungiz gero, Partzuergoak horren inguruan erabakirik agertzen ez duen bitartean.

27. ARTIKULUA. ERABILTZAIILEEN BETEBEHARRAK.

Erabiltzaileak behartuta daude isurketak baimenean agertzen denari jarraituz egitera, bai eta honako hauek betetzera ere:

1. Titulartasuna aldatuz gero, haren berri Udalari eta Partzuergoari ematea, isurketa-baimenean titularraren izena ager dadin.
2. Merkataritzak edo industriako jardueran aldaketaren bat egin, eta horrek isurketaren bolumenean edo elementu kutsatzailearen batean %10etik gorako aldaketa bat dakarrenean, haren berri Udalari eta Partzuergoari ematea, etxebizitzaren kasuan izan ezik.
3. Aurreko paragrafoan adierazitakoak baino munta nabarmen handiagoko aldaketa kuantitatibo edo kualitatiboak gertatzen badira merkataritzako edo industriako jardueran, isurketa-baimen berria eskatzea.
4. Partzuergoak egingo dizkie erabiltzaileei goian zerrendaturiko betebeharrak betetzeko eskaerak, eta horren guztiaren berri emango dio dagokion udalari.

Partzuergoak ofizioz egingo ditu beharrezko zuzenketak isurketa-baimenean, interesdunak ez badio kasurik egiten egindako eskaerari, eta Udala jakinaren gainean jarriko du.

Partzuergoaren ingurumen-helburuetako bat industria-jatorriko karga kutsatzaileen murrizketa sustatzea eta prozesuko urak berrerabiltzea dela kontuan hartuta, emarien sorkuntzari dagokionez operazioen ebaluazio bat egiteko eta sortutako efluenta murrizteko moduen inguruko txostena idazteko eskatu ahal izango zaio erabiltzaileari. Txosten hori Partzuergoaren eskura egongo da urtebeteko epean, Isurketa Baimena onartzen den unetik aurrera.

28. ARTIKULUA. GAINORDAINAK.

Saneamendu Sistemarako isurketak egiteko baimena dutelarik, 1 Eranskinean ezarritako isurketa-mugak gainditzen dituztenean, arazketa sistemetan eragindako kalteen proportzioan kargatuko dira erabiltzaileak. Kalte horiek kalkulatzeko, ondorengo formula hartuko da oinarritzat:

$$Pa = Ps * (Ve * E) * ((k1+k2+k3+ +kn)-1).$$

Non:

Pa = Arazketaren prezioa.

Ps= C motako erabiltzaileentzako saneamendu tasaren prezioa (€/m³).

Ve = Eguneko baimendutako isurketa bolumena.

E = mugak gainditu diren egun kopurua.

K = ORDENANTZA honetako 1 Eranskineko parametro bakoitzerako muga gainditu den aldi kopurua.

pHaren kasuan, dagokion K honako taula honen arabera aplikatuko da:

- 5,5 - 9,5 bitartean, K = 1.
- 5,01 - 5,5 edo 9,51 - 10 bitartean, k = 2.
- 4,51 - 5 edo 10,01 - 10,5 bitartean, k = 3.
- 4,01 - 4,5 edo 10,51 - 11 bitartean, k = 4.
- 3,51 - 4 edo 11,01 - 11,5 bitartean, k = 5.
- 3,01 - 3,5 edo 11,51 - 12 bitartean, k = 6.
- 2,51 - 3 edo 12,01 - 12,5 bitartean, k = 7.

2,51tik beherako eta 12,5etik gorako pH balioak isurketa debekatutzat joko dira.

K-ren balioa 1.000 dela ulertuko da, 8.1 artikuluan debekatutzat jotzen diren isurketetarako.

Baldin eta era errepikatuan gainditzen badira 1 Eranskinean ezarritako isurketa mugak, gainditze horiek erabiltzailearen isurketa-baimena deuseztatzea eragingo dute.

Erabiltzailearen batek 1 Eranskinean sartu ez den substantziaren bat isuriz gero, kasu bakoitzean aztertuko da isurketa muga.



VI. KAPITULUA. SANEAMENDU SARERA LOTZEA

29. ARTIKULUA. SANEAMENDU SISTEMA PUBLIKORA LOTZEA

1. Udal-estolderiara.

Udalerrien eskumena izango da baimena ematea dagozkien estolderia sareetara partikularrek egiten dituzten hartuneak lotzeko, bakoitzean indarrean den araudiaren ildotik.

2. Lehen mailako sarera.

Partzuergoak kudeatuko ditu lotzeko baimenak, hala udal estolderia sareenak, nola sare partikularrek lehen mailako saneamendu sarera egiten dituzten loturenak. Interesdunek Partzuergoaren Gerentziara igorritako eskari formalaren bidez eskatuko dute nahitaezko baimen hori.

Eskabidearekin batera, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte: sartuko den emaria; hodiaren diametroa, sestra-kota eta materiala; eta isurketaren ezaugarriak. Industriako isurketen kasuan, aurretik Partzuergoak ematen duen nahitaezko isurketa-baimena lortu beharko dute.

Sare orokorretarako edo araztegiatarako loturak, baldintza hauek betez egingo dira:

Eskatzaileak hormigoi armatzuko erregistro-putzu bat egingo du lotura-puntutik 2 metrora baino gutxiagora, lehen mailako sareko putzuraino doan hodirako zuloa egingo du, eta hodia bera jarriko du. Putzurako lotura eta, hala dagokionean, haren barruan egin beharreko obrak Partzuergoak egingo ditu, oro har, eta eskatzaileen kontura egongo da behar diren materialez hornitzea. Lotura gauzatu aurretik egin dituen lanei dagozkien gastuak ordainduko beharko dizkio Partzuergoari eskatzaileak. Partzuergoak izendaturiko teknikari batek gainbegiratuko ditu lanak.

Gorago ezarri diren baldintzak aldi baterako, denbora-tarte jakin baterako, loturen baimenen kasuan ere bete beharko dira.

30. ARTIKULUA. IZAPIDETZEA.

Lehen mailako sarera lotzeko baimenatarako eskabideak izapidetzean, ondorengo prozedura ezarri da:

Eskaera Partzuergoko Gerentziari zuzenduko zaio, ezarritako eskabide-ereduaren arabera. B eta C motetako erabiltzaileek isurketa-baimenaren kopia gehitu beharko dute, Partzuergoak hala eskatzen duenean.

Eskabideak ez baditu betetzen eskatzen diren baldintzak, interesdunari eskatuko zaio hilabeteko epean ikusitako akatsak zuzen ditzala. Ez baditu zuzentzen, haren eskabidea ez dela onartzen ulertuko da.

Bi hilabeteko gehienezko epean, txosten tekniko bat egingo da loturaren bideragarritasunari buruz.

Txosten hori aldekoa denean, Saneamenduaren Ustiapen Zuzendariordetzari bidaliko zaio, eta azken horrek izango du bere gain baimena emateko prozesua burutzeko ardura, hilabeteko epean gehienez.

Haren ardura izango da, halaber, lotzeko obrak gauzatzea, interesdunak halakoei dagokien abonua egin eta gero.

Baimenari ezezkoa ematen zaionean, ebazpen arrazoitua emango da, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

Txostena aurkakoa bada, interesdunari entzunaldia irekiko zaio, hilabeteko epean, egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzan; ondoren, Gerentziak behin betiko ebazpena emango du.

31. ARTIKULUA. INDUSTRIAKO ERABILTZAILEEN SARE PRIBATUKO JARDUERAK.

Estolderia sare pribatuek bereiz eraman behar dituzte euri-urak eta hondakin urak, estolderia sare publikoarekin edo araztegiarekin duten loturaraino; horrenbestez, ur-mota bat zein bestea identifikatu ahalko dira, haietako bakoitzetik laginak hartu ahalko dira, eta bakoitza bereiz ikuskatu ahalko da. Hori ez da oztopo izango xedapen iragankorretan horri buruz xedatzen denerako.

Oro har, sare pribatuak udal-estolderiara lotuko dira.

Sare pribatuak, hainbat erabiltzailearenak direnean, B edo C motako erabiltzaile bakoitzaren isurketak aztertu eta identifikatzeko moduan egingo dira, batzuk besteekin nahasi aurretik.

C motako erabiltzaileek eta B motako erabiltzaileek, Partzuergoak hala eskatzen dienean, kontrol-estazio bat instalatu beharko dute, sare pribatuen zati gisa eta estolderia sare publikora lotu aurretik. Kontrol-estazioak elementu hauek izango ditu:

a) ERREGISTRO-PUTZUA.

Erraz sartzeko moduko putzua, edonolako trabarik gabekoa, estolderia sare publikora lotu aurretik. Erabiltzaileak Partzuergoari eta Udalari helaraziko dizkie putzuen zein elementu osagarrien kokapen-planoak, erroldan sartu, identifikatu eta onartzeko.

Erregistro-putzua sarbide-libreko toki batean egongo da, eta, ixteko estalki bat behar izanez gero, estalki kulunkaria izango da, pertsona bakar batek erabili ahal izateko. V. eranskinean, erregistro-putzurako eredu bat jaso da. Erabiltzaileak hala proposaturik edo isurketaren ezaugarriengatik beharrezkoa denean, erregistro-putzuak Ordenantza honetan adierazitakoaren diseinu desberdina izan ahalko du. Partzuergoak onartu egin beharko du diseinu hori.

b) KONTROLEKO ELEMENTUAK.

Erregistro-putzu bakoitzak laginak modu errazean hartzeko, emariak neurtzeko, behar diren elementuak instalatzeko modukoa izan beharko du, bai noizbehinka neurketa egiteko, bai neurketa etengabea egiteko erregistroarekin eta totalizatzailearekin, bai lagin-hargailu automatiko bat edo bestelako gailu batzuk instalatzeko aukera izateko, isurketaren emariari eta kalitateari buruzko datuak denbora errealean eta etengabe neurtu, biltegiratu eta telekomunikatzeko.

Ahal den guztietan, erabiltzaile baten isurketak kontrol-estazio bakar batetik igaro ondoren hustuko dira Saneamendu Sistemara. Salbuespenez, bi edo gehiago ere jar daitezke, isurketak bateratzea zaila izanez gero.



VII. KAPITULUA. ZEHAPEN-ARAU BIDEA.

32. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEEN KOADRO OROKORRA.

1. Ordenantza honen aurkako ekintzak edo omisioak arau-hauste administratiboak izango dira, eta kapitulu honetan xedaturikoaren arabera zehatuko dira.
2. Arau-haustek honela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.
3. Arau-hauste arinak dira, saneamendu sistemari eta/edo hirugarren batzuei kalterik edo trabarik eragin ez zaionean, edo eragindako kalteak 500 eurotik gorakoak ez direnean:
 - a) Isurketa egitea Ordenantza honetan edo isurketa-baimenean –bestelakoak badira– ezarritako mugak hautsiz.
 - b) Isurketa-baimenean edo isurketa-salbuespenean ezarritako baldintzak ez betetzea.
 - c) Isurketa-baimenaren titulartasunaren aldaketak Ordenantza honetan ezarri bezala ez jakinaraztea.
 - d) Lehen mailako sareko instalazioetan hartuneak egitea, Partzuergoaren baimena izan gabe.
 - e) Ordenantza honetan jasotako arauen aurkako beste edozein ekintza edo omisio, ondoko idatz-zatietan berariaz arau-hauste larritzat edo oso larritzat jotzen ez baldin bada.
4. Arau-hauste larriak:
 - a) Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, beharrezkoa den informazioa emateari uko edo gogor egitea.
 - b) Ikuskapen, kontrol eta zaintzako lanak oztopatzea.
 - c) Arriskualdi edo larrialdi baten berri ez ematea.
 - d) Jardueraren edo isurketen kalitatearen aldaketak Ordenantza honetan ezarri bezala ez jakinaraztea.
 - e) 32.3 artikuluko a), b), c) eta d) idatz-zatietan jasotako jokabideak errepikatzea, arau-hausleari aurretik ere zehapena ezarri zaionean jokabide horietako baten kausaz arau-hauste arina leporaturik.
 - f) 32.3 artikuluko d) idatz-zatietan jasotako jokabideak izatea, saneamendu sistemari eta/edo hirugarren batzuei eragindako kalteak edota trabak 500 eurotik gorakoak direnean, baina 4.500 eurora iritsi gabe.
 - g) Lehen mailako sareko instalazioetan hartuneak egitea, Partzuergoaren baimenik gabe.
5. Arau-hauste oso larriak:
 - a) Isurketa debekatuak egitea.
 - b) 32.4 artikuluko a), b), c), eta d) idatz-zatietan jasotako jokabideak errepikatzea, arau-hausleari aurretik ere zehapena ezarri zaionean jokabide horietako baten kausaz arau-hauste larria leporaturik.
 - c) 32.3 artikuluko a), b), c), eta d) idatz-zatietan jasotako jokabideak errepikatzea, arau-hausleari aurretik ere zehapena ezarri zaionean jokabide horietako baten kausaz arau-hauste larria leporaturik, 32.4 e) artikuluari jarraituz.

- d) 32.3 artikuluko d) idatz-zatian eta 32.4 artikuluko g) idatz-zatian jasotako jokabideak izatea, saneamendu sistemari eta/edo hirugarren batzuei eragindako kalteak edota trabak 4.500 eurora edo gehiagora iristen direnean.

33. ARTIKULUA. ZEHAPENAK.

1. Arau-hauste arinak 3.000 euro arteko isunekin zehatuko dira; arau-hauste larriak, 3.001 eurotik 9.000 eurora bitarteko isunekin; eta arau-hauste oso larriak, 9.001 eurotik 15.000 eurora bitarteko isunekin.
2. Arau-hauste larriekin batera, isurketa-baimena aldi baterako eten egingo da, harik eta zehapena eragin duen kausa desagertu arte.
3. Arau-hauste oso larriekin batera, isurketa-baimena behin betiko etengo da.
4. Isurketa-baimena aldi baterako nahiz betiko eteten denean, urez hornitzeko arau-hauslearen kontratua ere deuseztatzea erabaki ahalko da.

34. ARTIKULUA. ERANTZULEA.

Hauek izango dira arauak hausten dituzten jokabideen erantzule:

- a) Gorde ez delako edo bete ez delako, arau-haustearen sorburu den isurketa-baimenari edo dena delako administrazio-tituluari dagokionez, halakoaren titularra.
- b) Gainerako kasuetan, jardueraren sustatzailea eta egilea, halakoa gauzatzen duena nahiz arau-haustea eragin duen egitatean ekintzaz edo omisioz parte hartzen duen beste edozein subjektu.

Arau-haustearen erantzule bat baino gehiago dagoenean, halakoaren ondorioak solidarioki eskatuko dira.

35. ARTIKULUA. ORDAINA ETA KALTE-ORDAINA.

1. Zehatu diren jokabideek saneamendu sistemari edo hirugarren batzuei kalteak eragin dizkietenean, zehapen-prozeduraren ebazpenean hauek ezarri ahalko dira:

- a) Arau-hausleari arau-haustea aldaturiko egoera jatorriz zegoen modura lehengora dezala agintzea.
Lehengoratzeko betebeharrak hori bete dadin, Partzuergoak isun hertsagarriak ezarri ahalko dizkio arau-hausleari, lehengoratzeko hori gauzatzeko formalki eskatu eta gero, arau-hausleak kasu egiten ez dionean eskaera horri horretarako finkatutako epean.
Isun hertsagarriak ezingo dira izan zehatzeko ebazpenean arau-hausleari ezarri zaion isunaren %10 baino gehiago, eta astetik atera ezarri ahalko dira berriz.

Arau-hausleak lehengoratzeko betebeharrak hori betetzen ez badu, Partzuergoak subsidiarioki gauzatu ahalko du hura, ordenamendu juridikoan xedaturiko moduan.



- b) Eragindako kalte-galeren kalte-ordaina ezartzea, prozeduran haien zenbatekoa zehaztu denean.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren aldaturiko egoera lehengoratzeko agindua eta kalte-galeren kalte-ordaina, zehatzeko ebazpenak halakoak jasotzen ez dituenen, dagokion prozedura osagarriaren bidez finkatu ahalko dira; haren ondoriozko ebazpena berehala izango da betearazlea.

36. ARTIKULUA. BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK.

1. Jokabide arau-hausleak arriskuak sor ditzakeenean Saneamendu Sistemaren osotasun edo funtzionamendurako edo, oro har, arazketa prozesurako zein ustiatzeko eta mantentzeko ardura duten pertsonen osasunerako, arau-haustea eragin duen jarduera berehala geldiaraztea erabaki ahalko da, eta, horretarako eskaerari kasurik egiten ez bazaio, isurketa-baimena kautelaz etetea eta beharrezko jarduerak aurrera eramatea halakoa gauzatzeko, zehapen-espeditentea ebatzi arte.

2. Erabaki hori arrazoitua izango da, eta ebazteko eskumena duen organoak hartuko du, eta, salbuespenez, espeditentearen instruktoreak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko 2/1998 Legeko 31. eta 32. artikuluetan zein aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritako moduan eta prozedurazko eta formazko eskakizun guztien arabera.

37. ARTIKULUA. ZEHAPEN-PROZEDURA.

1. Partzuergoaren esku egongo da espeditentea abiarazi, izapidetu eta ebaztea, eta, hala dagokionean, zehapenak ezartzea.

Partzuergoak, halaber, kasu bakoitzean eskumena duten administrazio eta erakunde publikoen aurrean espeditenteak abiarazteko eskatu ahalko du, ordenamendu juridikoari jarraituz.

2. Zehapen-prozedurak jarraitu egin beharko die zehatzeko ahalmenaren printzipioei nahiz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko X. tituluaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean eta aplikatzekoa den gainerako araudian jasotako eskakizun eta izapideei.

3. Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen eskumena izango da zehapen-prozedura abiarazi eta ebaztea. Prozeduraren instruktorea prozedura abiarazteko erabakian izendatuko da.

Ezartzen diren diru-zehapenak betearazleak izango dira, eta administrazio-premiamenduz ordainarazi ahalko dira, borondatez ordaintzen ez badira.

VIII. KAPITULUA. EBAZPENAK ETA ERREKURTSOAK

38. ARTIKULUA. ESKUMENA.

Ordenantzan xedaturikoaren arabera Partzuergoak hartu beharreko ebazpenak eskumen hori bere gain hartu duten organoek egingo dituzte.

Partzuergoko udalek hartu behar dituzten ebazpenak Toki Araubidearen Legediaren arabera horretarako eskumena duten organoek emango dituzte.

39. ARTIKULUA. ERREKURTSOAK.

